

2025EKO MARTXOAREN 10EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko martxoaren hamarrean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkeztu da 2025eko otsailaren 24an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 13 zenbakidun zerrenda, HIRUROGEITA HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI euro ETA HIRUROGEITA HAMALAU zentimokoa (74.837,74 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- INSTALAZIO ELEKTRIKOEN MANTENTZE KONTRATUAREN LEHEN LUZAPENA.-

Lazkaoko Udaleko zerbitzu buruak, instalakuntza elektrikoaren mantentze eta konponketa zerbitzua emateko Udalak LOYOLA NORTE, S. A. enpresarekin sinatua duen kontratuaren lehen luzapena proposatu du.

Udal honek 2023ko apirilaren 3an izenpetu zuen LOYOLA NORTE, S. A. enpresarekin Lazkaoko Udaleko instalakuntza elektrikoaren mantentze eta konponketa zerbitzua emateko kontratua, lehiaketa ireki bidez ateratako lizitazioa berari esleitu zitzaionez.

Kontratu hau bi urterako izenpetu zen eta urte beteko 2 luzapen egiteko aukera dago. Bi urteko epea 2025eko apirilaren 3an beteko da.

Lazkaoko Udaleko zerbitzu buruak 2025eko otsailaren 28ko data daraman txostena burutu du, bere aldetik urte beteko lehen luzapena egiteko proposamena eginez.

Hau guztia honela, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, LOYOLA NORTE, S. A.-rekin izenpetutako Lazkaoko Udaleko instalakuntza elektrikoen mantentze eta konponketa zerbitzuaren kontratua urte betez luzatzea erabaki du.

IV.- HIRIGOIEN 56-58AN BULEGOETARAKO 2 LOKAL GAITZEKO PROIEKTUA GAUZATZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIAREN ONARPENA.-

Udal honen eskariz, Soroa Arquitectos S.L.P.ko Pedro Izaskun arkitektoak, Hirigoien kaleko 56 eta 58 zenbakietan Udalak dituen bi lokal gaitzeko proiektua idatzi du.

Proiektuaren xedea bi lokal horiek bulego gisa gaitzea da.

Proiektu honen aurrekontua 124.470,50 €-koa da. Zenbateko honi dagokion BEZa erantsi beharko zaio.

Beste alde batetik udal zerbitzu administratiboek kontratazio espedientea prestatu dute, lanak lehiaketa bidez esleitzeko.

Hau guztia horrela, gaia aztertu ondoren, eta hirigintza batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

- 1.- Hirigoien kaleko 56 eta 58 zenbakietan Udalak dituen bi lokal gaitzeko proiektua onartzea.
- 2.- Lanak lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea.

V.- HIRIGOIEN 56-1C ETA 4C ETA 58-4D ETXEBIZITZEN KOMUNITATEEN GASTUEN IGOERA ETA ATZERAPENEN ONARPENA.-

Udaleko Kontu-hartzaileak 2025eko martxoaren 7an egin zuen txostenean dioenaren arabera, 2025eko otsailaren 5ean Hirigoien 56-58ko komunitateko 2024ko abenduaren 11n izandako urteko Batzar Orokorreko akta jaso genuen udalean.

Aktaren bigarren puntuak ondorengo dio:

"2. Hurrengo urteko aurrekontuaren aurkezpena eta onarpena. Hurrengo ekitaldiko aurrekontua iazko gastuetan oinarrituta egingo da, aurreikusitako ohiko igoerekin, eta ezustekoetarako ohiko funtsa eta sor daitezkeen premiazko edo ustekabeko konponketak ere sartuko dira. Halaber, gehiengoz erabaki da ataria eta eskailerak garbitzea (bi

aurrekontu aurkezten dira), eta beraz, hileko kuota % 28 igoko da 2025eko urtarriletik aurrera.”

Hau honela, Lazkaoko Udalak dituen etxebizitzetako dagozkien komunitate kuotak honakoak izango lirateke:

- * HIRIGOIEN 56 1°C: 55,30€
- * HIRIGOIEN 56 4°C: 56,83€
- * HIRIGOIEN 58 4°D: 70,66€.

Beraz, hau guztia ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, honakoak onartu ditu:

Lehena.- 2025eko martxotik aurrera ondorengo komunitate kuotak ordaintzea onartzea:

- * HIRIGOIEN 56 1°C: 55,30€
- * HIRIGOIEN 56 4°C: 56,83€
- * HIRIGOIEN 58 4°D: 70,66€.

Bigarrena.- 2025eko atzerapenak ordaintzea, urtarrileko eta otsaileko kuotei dagokiena, guztira:

- * HIRIGOIEN 56 1°C: 24,20€
- * HIRIGOIEN 56 4°C: 24,86€
- * HIRIGOIEN 58 4°D: 30,92€.

VI.- GOIEKI S.A.-RI 2025EKO EKARPENAK.-

Goierriko Garapen Agentzia S.A.k (GOIEKI) bere partaideak diren Udalek 2025erako egin beharreko ekarpenak planteatu ditu.

Ekarpenak Udal bakoitzak dituen biztanleen arabera dira eta Lazkaori honako ekarpenak dagozkio:

- Ekarpenero orokorra	56.840,72 €
- Gizarte arloko ekarpena	8.783,82 €
- Ateak Ireki	653,15 €
- Goierri Barnetik	7.837,80 €

Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, GOIEKiri 2025eko ekarpen hauek onartu egin ditu aho batez.

VII.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 11-11-05 zenbakidun esped.: astean 2 ordutik 4 ordura pasatzea martxoaren 3tik aurrera. Onuradunen ekarpena % 35ekoa izango da.
- 21-11-04 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzuan baja heriotzagatik 2025eko otsailaren 22an.
- 25-11-02 zenbakidun esped.: otsailaren 27tik etxeko laguntza zerbitzuan alta ematea astean bi orduz etxeko garbiketara laguntzeko. Onuradunaren ekarpena % 2koa izango da.
- 25-11-09 zenbakidun esped.: etxeko laguntza zerbitzua murriztea astean 15 ordutik 8 ordura, martxoaren 3tik aurrera, onuradunak eskatuta. Onuradunaren ekarpena % 100ekoa da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 135 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 142,50 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 95 da.
- 09-01-007 zenbakidun esped.: etxebizitzaren mantentze gastuetarako hilean 144 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 96 da.
- 14-01-005 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 83 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 55 da.
- 16-01-005 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.
- 21-01-009 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako dirulaguntzari baja ematea martxotik. Gizarte Larrialdietako Laguntzen eskaera berri ahal izateko eskatu zaion dokumentazioa aurkezteari uko egin dio.
- 22-01-007 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 145,50 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 97 da.
- 22-01-010 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 89,73 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura eta alokairu gastuetarako hilean 242,50 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 83 da.
- 22-01-016 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 48 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 32 da.
- 23-01-004 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 150 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 100 da.

- 24-01-009 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 100 €-ko dirulaguntza ematea urtarriletik abendura. Eman daitekeenaren % 67 da.
- 25-01-003 zenbakidun esped.: etxeko mantentze gastuetarako hilean 100,50 €-ko dirulaguntza ematea martxotik abendura. Eman daitekeenaren % 67 da.

Familia laguntzak.-

- 23-15-04 zenbakidun esped.: martxoan eta apirilean esku-hartze familiarrarekin jarraitzea. Horretarako aurrekontua 1.078 €-koa da.
- 24-15-01 zenbakidun esped.: familia esku-hartzea martxan jartzea. 5 hilabetetan garatuko den *balorazioa esku-hartzean* fasearen aurrekontua 4.708 €-koa da.

Gazte Laguntzaileentzat bekak.-

2025. urterako Lazkaoko Gazte Laguntzaileen bekak eskatzeko deialdia egitea.

Beka hauen oinarri arautzaileak 2016ko urtarrilaren 26ko osoko bilkuran onartu-ta-koak dira eta 2016-03-30eko GAO-n argitaratu ziren.

- Eskerak aurkezteko epea 2025eko maiatzaren 30 artekoa izango da.
- Gehienera 2.000,00 €-ko diru laguntza onartuko da pertsonako.
- 2025 urteari dagokionean aurrekontua 3.000,00 €-koa izango da.

VIII.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

- Zawopi Aisialdi Taldeari.-

2025ko urtarrilean errege kabalgata eta astotxo eguna antolatzeagatik, urte honetan horretarako izendatu den partidatik 5.000 € ordaintzea.

Honakoak partida honetatik egin behar da ordainketa:

1 481.09.334.00 2025

- Banda de Música de Lazkao.-

Conceder una subvención de 2.000,00 € por la organización del concierto de la Banda de Lazkao durante los carnavales de 2025.

El pago se realizará con cargo a la partida presupuestaria 481.07.334.00.

IX.- EKONOMIA SUSTAPEN ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ez da proposamenik aurkeztu.

X.- LANDA EREMUA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ez da proposamenik aurkeztu.

XI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

XII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeita hamar direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.